

**Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena**

**Euskara biziberritzeko Plan Nagusia, Enkarterri (2013-2017)**

<b>EBPNren helburu orokorra</b>
Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da.
<b>Enkarterriko Euskararen Plan Estrategikoaren helburu nagusia 2013-2016 epealdirako</b>
Enkarterriko herritarrek euskararenganako sentsibilizazio handiagoa izatea, eskualdeko euskaldun kopurua handitzea eta Enkarterriko euskaldun sarea sendotzea.

Esparruak	Zehar-lerroak		
1. Familia transmisioa	Euskaldunen sarea sortu eta sendotu.	Euskalgintza erreferente bihurtu.	Erdaldunen euskararekiko aldeko jarrera sustatu.
2. Euskalduntzea-prestakuntza			
3. Irakaskuntza			
4. Aisia			
5. Kirola			
6. Kulturgintza			
7. Komunikabideak			
8. Teknologia berriak			
9. Lan mundua			

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 1. Familia transmisioa

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Guraso euskaldunak eduki arren, haurrengan inguruak eragin handia du eta erdararako joera handia dute.</li> <li>• Haurrentzako eskaintzaren %100 ez da euskaraz, nahiz eta Enkarterriko haur ia gehienak D ereduan ikasten duten.</li> <li>• Gurasoen jarrera euskararekiko: ez da nahikoa haurrak D ereduan matrikulatzea, guraso erdaldunen euskararekiko jarrera ez da proaktiboa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia barruko erabileran eragiteko, familia kide guztientzako jarduerak edo tailerrak antolatzea, kide guztien arteko ohituretan eragiteko.</li> <li>• Etxean ere euskarazko produktuak kontsumitu.</li> <li>• Jarrera pasiboak aktibatzekeo kanpainak egin. Motibazioan eta jarreraren eragin. Euskararen aldeko motibazioan eragiteko formulak bilatu. TELP jarreraren inguruko lanketa pertsona estrategikoen artean. Guraso erdaldunengan eragin euskararenganako maitasuna transmititzeko.</li> <li>• Gurasoei baliabideak eman euskaraz egiteko hurrei.</li> <li>• Euskara ikasleentzako diru-laguntzak (gurasoak...).</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Guraso euskaldunak (gurasoetako bat ala biak) dauden familietan, euskara bihurtu familia-hizkuntza.</li> <li>• Guraso erdaldunek euskararen aldeko jarrera izan dezaten bultzatu eta euskararen sustapen lanean proaktibo bihurtu.</li> <li>• Gurasoen artean euskararen ezagutza areagotu.</li> <li>• Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekintzen %100 euskaraz izan daitezzen eragin.</li> </ul>	

### Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Haur jaiο berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...[Gutunak, disko digitalak, haur-hizkera erakusten duten liburuxkak, egutegiak, "speak up" materiala, autoetako pegatinak, gidak, euskararen "merchandising"-a (amantalak, sukaldeko arbelak...) eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Eman giltza kanpaina, Ku-ku liburuxka eta ume elebidunen gurasoentzako liburuxka banatu guraso berrien artean.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Haur jaiο berrien eta 1-2 urteko haurren gurasoak.
	Arduradunak
	Erroldako arduradunak-euskara teknikaria
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezten. [Aurrematrikulazio kanpainak; hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, irratsaioak, liburuxkak...]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Matrikulazio kanpaina 0-1 urteko haurren gurasoei zuzenduta (D bitamina).</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	0-1 urteko haurren gurasoak.
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezten. [Aurrematrikulazio kanpainak; hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, irratsaioak, liburuxkak...]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Guraso erdaldunengan eragiteko sentsibilizazio ekimenak, euren egitekoaz jabetzeko, hausnartzeko eta aldeko jarreraz euren seme-alabengan euskararen erabilera eta maitasuna sustatu dezaten.</li> <li>● Familia jolasean hainbat ikastaro guraso euskaldunentzat edo ikasten ari direnentzat.</li> </ul>	Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	0-6 urte bitarteko haurren gurasoak.
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeak
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, Mankomunitatea osatzen duten udaleen menpeko guneetan eskuragarri jarri...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskarazko produktuen katalogoa banatzea.</li> </ul>	Komunikazioa
	Eraginpekoak
	3-16 urte bitartekoa batez ere
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeak
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: Gurasolagun... ["Kontaidazu ipuin bat" lehiaketa, "Mihiluze" lehiaketa, Jolasen Eguna, "Euskera olgetan errotu" lehiaketa, eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gurasoetako bat edo biak euskaldunak dituzten familientzako ekitaldi finkoak (programa finkoa) antolatu (hilean behin, bi hilean behin...) euren hizkuntza ohituretan eragiteko eta familia euskaldunen arteko harremanak sendotzeko.</li> </ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Guraso (bat ala biak) euskaldunak dituzten familiak.
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

\*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 2. Euskalduntzea-prestakuntza

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Orokorrean, euskara ikasle guztiei diru-laguntzarik ez.</li> <li>Berbalagun ondo dabil, baina euskaldun falta dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara ikasleentzako diru-laguntzak (gurasoak...).</li> <li>Berbalagun euskara ikasleei soilik ez, euskaldunei ere zabaldu, bideak landu. Euskaldun sarea eratzea.</li> <li>Euskara ikastaroak egokitu.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara edozein euskaltegitan ikasten dutenei diru-laguntzak emateko beharraz ohartarazi udalei eta aholkularitza teknikoa eskaini</li> <li>Euskara ikasleei euskara erabiltzeko aukerak areagotu: Berbalagun, agenda-kulturala, ikastaroak,...</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini ditzatela udalek baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskara ikasteagatik eman ahal diren dirulaguntzen edo ordenantzen ereduak prestatu eta udaletako arduradunei eskaini.</li> </ul>	Laguntza teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Euskara ikasleak.
	Arduradunak
	Mankomunitatea > Udalak
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>"Mintzalagun" proiektua jorrazeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Berbalagun egitasmoa indartu, formula berrien bidez hobetu, eta euskaldun sarea sendotu.</li> </ul>	Ikastaro bereziak eskaini.
	Eraginpekoak
	Euskara ikasleak/euskaldunak
	Arduradunak
	Eragileen batzordea (Mankomunitatea eta Balmasedako udala gehi Udal euskaltegia, AEK, Hizkuntza eskola, dinamizatzaileak)
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeko edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; mintzamina lantzeko; jendaurrean hitz egiteko; herri hizkeraz; hitanoaz... Begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, irakasle, euskaltegiako irakasle, komunikabideetako esatari, merkatari, ostalari, udaltzaintzako hobekuntza ikastaroak antolatu. [Euskara ikasteko ikastaro bereziak eta tailerrak; HABEk laguntzen ez dituen taldeak, ratoria iristen ez direlako edota aldi motz baterako direlako; eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Eskualde mailako eskaintza modu koordinatuan antolatu eta modu egokian egin horren inguruko komunikazio eta informazioa, matrikulazio kanpaina egin, eta euskaltegiei baliabideak eskaini taldeak sortzeko Mankomunitateko udalerrietan.</li> <li>● Ikastaro bereziak eskaini ikasleei (“zergatik ez tailerra”, “Jendaurrean hitz egiteko tailerra”)</li> </ul>	Ikastaro bereziak eskaini.
	Eraginpekoak
	Euskara ikasleak
	Arduradunak
	Euskaltegiak
	Mankomunitatea
	Lehentasuna
*	



## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 3. Irakaskuntza

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez da benetako D eredu.</li> </ul>	
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Euskarazko ikastereduak sustatu</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza eskaintza osoa D ereduakoa den arren, eredu horren premiei erantzuna eman eta osatu.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzearen gazteengan eragin, euskarazko ereduaren ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak... [Matrikulazio kanpainak, besteak beste.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Nahi dudalako kanpaina: DBHko ikasleen artean.</li> <li>● Sentsibilizazio Hitzaldiak ikasleentzat.</li> <li>● Lanbide heziketak euskaraz izan daitezkeen bultzatu. Gurasoentzako gutuna.</li> <li>● Eskaintza zabalagoa sustatu.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	4. DBHko ikasleak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeetako orientatzaileak
	Lehentasuna
Kanpaina: *	
Eskaintza handitu: *	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Zalantzan haurren arduradunen jarrera euskararekiko: begirale, irakasle eta abarren proaktibotasunaren menpe dago sustapen lana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasle, begirale eta monitoreen artean euskara sustatzeko sensibilizazioa eta proaktibotasuna sustatu (TELP).</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolaz kanpoko jardueren %100 euskaraz izan dadin bermatu.</li> <li>Irakasleen eta begiraleen euskararen inguruko proaktibotasuna indartu.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Hitzarmena sinatu eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko. [Eskola Kirola ere bai, besteak beste]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Arazoak edo hutsuneak identifikatu eta laguntza eskaini (monitore euskaldunak topatzeko, etab.)</li> <li>● Irakasle, monitore eta begiraleekin lanketa berezia egin sentsibilizazio lanean duten erantzukizunaz jabetzeko (TELP modukoak).</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Guraso elkarteak, eskolaz kanpoko ekintzak ematen dituztenak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua, ikastetxeak eta guraso elkarteak
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleek nahiz eta D ereduan ikasi, maila eskasa daukate.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolaz kanpoko euskarazko eskaintza indartu.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eskola-orduetan euskararen erabilera areagotu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleen motibazioan eragin eskolan euskaraz egiteko.</li> <li>Irakasleen motibazioa eta eragiletasuna indartu.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
Euskara sustatzeko programa bereziak gauzatu (ahozkotasuna, bertsolaritza...) <ul style="list-style-type: none"> <li>● Bertsogintza egitasmoa.</li> <li>● Formula berriak.</li> </ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Haur eta gazteak
	Arduradunak
	Ikastetxeak, Mankomunitatea
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 4. Aisia

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Haurren aisialdian euskararen erabilera ez dago araututa.</li> <li>Haurren ekitaldian euskara erabili arren, gaztelaniarekiko joera (inguruak behartuta).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Transbersalitatea (zeharkakotasuna): euskarazko ekintzak euskarazko arlotik ez, arlo denetatik sustatu behar dira euskarazko ekimen eta ikastaroak.</li> <li>X beherakoan eskaintzaren %100 euskarazkoa BETI. Udal eta Mankomunitatean haurren aisialdirako hizkuntza irizpideak zehaztea eta betearazteko adierazleak zehaztea.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko eskaintza erakargarri egin, euskaldun gehienak erakartzeko modukoak eta euskaldunen arteko harremana sendotzeko asmoz.</li> <li>Adin batetik beherako haur-gazteen eskaintzaren % 100 euskaraz izan dadila eragin.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietako (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) ["Euskera agoan" programa, eta gisakoak].</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Udalekuak. Antolatzeaz gain, sustapen lana eta laguntzak.</li> </ul>	Ekimenak antolatu
	Eraginpekoak
	Haur eta gazteak.
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	*



## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Tailer berritzaile eta erakargarriak: makillaje, irratigintza...</li> <li>● Udalarekin eta beste eragileekin batera adin batetik beherakoentzako eskaintza euskaraz izan dadin konpromisoak sustatu.</li> <li>● Antolatzen diren ikastaroen eta ekintzen jarraipena egitea (berezi udaletatik eta Mankomunitatetik) hizkuntza eskubideak bermatzen diren ziurtatzeko.</li> <li>● Euskaraz diren ekintzetarako, diru-laguntzak emateko bideak zabaltu udalari.</li> <li>● Begirale ikastaroa.</li> </ul>	Ekimenak antolatu
	Eraginpekoak
	Gazteak.
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta udalak
	Lehentasuna
	<p>* Diru-laguntzak: *</p>

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 5. Kirola

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirolean oro har ez da erabiltzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirol monitore euskaldunak topatzea ez da nahikoa, euskararen aldeko jarrera proaktiboa landu beha da. Oso eremu emankor eta estrategikoa da.</li> <li>Kirola eskola: euskarazko taldeak eskaini behar dira eta diskriminazio positiboa landu.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirol monitoreen euskara maila handitu eta euskararen sustatzaile bihurtu.</li> <li>Haurren kirol eskaintzan euskarazko eskaintza bermatu eta finkatu.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Hitzarmengintza landu kirol elkarrekin: euskararen alde urratsak emateko.</li> <li>● Laguntza tekniko eskaini: itzulpenak eta publizitatean kalitatea zaintzeko.</li> <li>● Kirol monitoreen euskararen aldeko motibazioa landu.</li> <li>● Eskola kirolaren eskaintzaren %100 euskarazkoa izan dadin eragin.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Kirol elkarteak
	Arduradunak
	Makomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>Herriko kiroldegietako helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu..</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Kirol eskaintzan udalek euskarazkoa txerta dezaten eragin. Eskaintza kalitatezkoa izango da eta ordutegi zabalean.</li> </ul>	Ekimenak antolatu
	Eraginpekoak
	Udal kiroldegia
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta udalak
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 6. Kulturgintza

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko ekimenak kopuruz gutxi dira.</li> <li>• Ekimen arrakastatsuetan erdararen eragina agertzen da, eta hasierako egitasmoa desitxuratzen da.</li> <li>• Euskal sareak falta, euskaldunon arteko harremanak sendotzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahulgune batzuei ez diete heldu eskualdeko egoera soziolinguistikoaren eragina dela eta ez dutelako neurri egokirik topatzen., eta ez dutelako ahulgune horietan eragiteko modurik ikusten.</li> <li>• Transbersalitatea (zeharkakotasuna): euskarazko ekintzak euskarazko arlotik ez, arlo denetatik sustatu behar dira euskarazko ekimen eta ikastaroak.</li> <li>• X beherakoan eskaintzaren %100 euskarazkoa BETI. Udal eta Mankomunitatean haurren aisialdirako hizkuntza irizpideak zehaztea eta betearazteko adierazleak zehaztea.</li> <li>• Euskara ziurtagiria bultzatzea elkarteetan (Bai Euskarari). Euskararen erabileran urratsak saritzea.</li> <li>• Euskarazko sareak sortzeko ahaleginak. Bertoko erreferenteak identifikatu euskararen munduan.</li> <li>• Atxikimendu kanpaina herritarren artean: administratibotik prestigioa eman behar zaie. Konpromisoa herritarren artean.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarteetan lanketa euskararen presentzia areagotzeko eta urratsak emateko.</li> <li>• Euskarazko ekitaldien komunikazioa eta publizitatea zaindu: euskarazko agenda sortu.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Hitzarmengintza landu herriko elkarteetan: euskararen aldeko urratsak eman ditzaten.</li> </ul>	Hitzarmena elkarteetan
	Eraginpekoak
	Elkarteak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta udaletako kultura teknikariak
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu.</p> <p>Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Kalitatezko eskaintza bermatzen lagundu.</li> <li>● Komunikazioa landu.</li> <li>● Gazteen artean euskarazko ekimenak sortzeko eta euskaraz bizitzeko sustapen lana egin..</li> </ul>	Hitzarmena elkarteetan
	Eraginpekoak
	Elkarteak
	Arduradunak
	Makomunitateko Euskara Zerbitzua eta udaletako kultura saila
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Kultura arloko euskararen plan estrategikoa egin hurrengo urteetarako, udalerriko eragile ezberdinekin elkarlanean, betiere, euskararen erabilera eta presentzia handitzera bideratua.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskaraz antolatzen diren ekitaldien agenda osatu: koordinatu udal eta elkarten artean, publizitatea eta komunikazioa modu landuan egin ahalik eta euskaldun gehienengana heltzeko. Berbalagunen agenda osatu, indartu, komunikazioa landu, garatu...</li> <li>● Zabalkundea landu: hileroko ekintzak osatu eta hileroko ahalik eta jende gehiagorengana heldu.</li> </ul>	Hitzarmena elkarteetan
	Eraginpekoak
	Elkarteak
	Arduradunak
	Berbalagun, Mankomunitatea, Udalak, kultur taldeak
	Lehentasuna

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 7. Komunikabideak

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enkarterri Irratian euskarazko oso eskaintza txikia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enkarterri Irratian euskarazko programa bat sortu prime timean.</li> <li>• Hedabideetan ez modu kuantitatiboan, baina kualitatiboan euskararen presentzia.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enkarterri Irratiko euskarazko eskaintza areagotu.</li> <li>• Udal aldizkariak elebidunak ehuneko ehunean izan daitezen eragin eta horrela ez bada euskararen presentzia %50era hel dadila bermatu.</li> <li>• “Salgai” eta horrelako aldizkarietan euskara sustatu diru-laguntzen edo hitzarmenen bidez.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatu: emanaldietako sarrerak oparitu...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Irratian, euskarazko programa erakargarri bat sortu prime timean.</li> <li>● Diru-laguntzak euskararen presentzia bermatzearren.</li> <li>● Enkarterri irrastian euskara ikasleak inplikatu.</li> <li>● Euskarazko propaganda merkeago.</li> </ul>	Ekimena antolatu.
	Eraginpekoak
	Enkarterriko bizilagunak.
	Arduradunak
	Enkarterri Irratia
	Mankomunitatea
	Euskaltegiak Eskualdeko aldizkari pribatuak Udal aldizkariak
Lehentasuna	
Euskarazko kalitatezko programa sortu: *	
Euskaltegien partaidetza sustatu: *	
Euskarazko propaganda merkeago: *	



## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 8. Teknologia berriak

Ahulgunea	Proposamenak
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen artean bereziki teknologia berrietan euskararen erabilera handitzea.</li> <li>• Kultur eta kirol taldeetako webguneak euskaratu.</li> </ul>	

Ekintza	Estrategia
Teknologia berriak euskaraz erabiltzeko ikastaroak, lehiaketak eta horrelako ekintzak antolatu adin guztietarako. <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikastaroak antolatu.</li> <li>● Erronk@rterri Sareko ginkana edo horrelako ekintzak euskarazko aplikazioak eta programak ezagutarazteko.</li> </ul>	Ekitaldiak eskaini
	Eraginpekoak
	Gazteak bereziki
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeak
	Lehentasuna

n

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Herritarrek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...</p> <p>Web-guneak euskaratu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Hitzarmen barruko elkarteei eskaini ahal zaie zerbitzua.</li> </ul>	Laguntza teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Kultur eta kirol taldeak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Berbalaguneko agendaren sustapen lana Internet bidez, sare sozialak eta erabilia.</li> </ul>	Laguntza teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Berbalagunak, euskaldunak eta euskaldungaiak
	Arduradunak
	Berbalagun egitasmoaren dinamizatzaileak eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

### 9. Lan mundua

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dendetako jabe gehienak erdaldunak dira.</li> <li>• Ordutegi txarrak euskara ikasteko.</li> <li>• Ez dute lotzen euskara negozio edo salmentarekin. Ez dute euskara ikusten zerbitzu hobea emateko aukera lez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzarmengintza landu: euskararen aldeko urratsak.</li> <li>• Bezeroengan eragin lehen hitza euskaraz izateko.</li> <li>• Euskara ikastaroak merkatariei moldatuak.</li> </ul>
Helburua (IRATI)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.</b></li> </ul>	
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen balio erantsia ikusaraztea.</li> <li>• Establezimenduetako hizkuntza paisaian euskararen presentzia areagotzea.</li> <li>• Lehen hitza euskaraz izan dadin bideak zabaltzea.</li> </ul>	

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko... [programa informatiko euskaldunak ezartzeko diru-laguntzak eskaintzea eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Mankomunitateak itzulpenak eta kartelak egiteko laguntza teknikoa eskaintzea.</li> <li>● Udaletatik zerga merkatzea errotulazioa elebietan jartzeagatik.</li> <li>● Euskarazko eskaera sustatzeko saritu bezeroak (puntuak...)</li> <li>● Euskaraz dakitenen berri eman webgunean.</li> <li>● EPK aprobetxatuta, bertoko dendetan euskarazko produktuak erosteko ekintzak sustatu.</li> </ul>	Laguntza teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	<p>Laguntza teknikoa: *</p> <p>Zerga merkatu: *</p> <p>Bezeroak animatu: *</p>

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<p>Saritu merkatari eta ostalarien ahalegina: udaleko webean eskegi...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sarien bitartez ahaleginak egiten dituzten establezimenduak saritu Euskararen Egunaren inguruan eta gainerako establezimenduei ikusarazi euskarak duen balioa.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	*

Ekintza	Estrategia
<p>Negoioetako jabeei jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara eskaintzarik onena (Alkarbide) egitasmoa aurkeztu merkatariari.</li> </ul>	Laguntza teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Merkatari, ostalari eta zerbitzu-establezimenduak
	Arduradunak
	Mankomunitateko Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

ZEHARLERROAK	
Ahulguneak	Proposamenak
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskaltzaleen sarea eta egiturak sortzea.</li> <li>▪ Euskararen erabilera areagotzea esparru guztietan.</li> <li>▪ Herritarrak euskararen egoeraz sentsibilizatzea.</li> <li>▪ Euskaldun liderrak sortzea.</li> <li>▪ Euskara prestigiatzea.</li> </ul>	

Ekintza	Estrategia
Egiturak sortzea: ➔ Euskararen Aholku Batzordea sortzea Mankomunitatean. Enkarterriko euskaltzaleen sarea sendotzeko helburuz. ➔ Berbalagun agenda indartu eta euskarazko ekitaldien agenda bihurtu, indartu eta sustatu. Euskararen erabilera helburu izanik.	Egiturak sortu
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Aholku Batzordea
	Lehentasuna
	*

## Enkarterriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2016, proposamena

Ekintza	Estrategia
<b>Liderrak sortu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>➡ Sariak eta aitortzak: euskararen erabileran urratsak eta ahaleginak saritu. Herritarrak zein eragile, merkatari eta abar.</li> <li>➡ Eragile estrategikoak identifikatu: euskaraz ari direnak eta laguntza eman.</li> </ul>	Lidergoa indartzea
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Mankomunitatea
	Lehentasuna
	✳

Ekintza	Estrategia
<b>Euskararen aldeko mezuak zabaldu, egoera ikusarazi eta erabilera sustatu:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>➡ Erdaldunak sentsibilizatu euskararen egoeraz.</li> <li>➡ Euskaldunak sortzeko neurriak abian jarri.</li> <li>➡ Euskaldunen erabilera sustatu.</li> </ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Aholku Batzordea
	Lehentasuna
	✳